



SOTERRAMIENTO, UN TREN DE DOBLE VÍA

HUMBOLDT, GURE ARTEAN

PAISAJES INDUSTRIALES
DE DURANGALDEA

ANBOTOKO HEREJEAK

LA ESCUELA
EXPERIMENTAL
DE ELORRIO

DURANGOKO
PLATERUAK

astola

ikerketa eta historia

DURANGALDEKO URTEKARIA


10.zk 2016 • 5e

Pla




Durangoko teruak

Anttonmari Aldekoa-Otalora





 Zilargien lantegi bateko grabatua (Dalenbert-en Entziklopedia).

Zer da memoria, zer da tradizioa, zer da historia, zer da betikoa? Gernikako arbolaren egilea nor zen badakigu. Nor ote zen Agur Zuberoarena, Ogi zeruotikena, Agur Jaunak, Boga-bogarena, Agur Jesusen Ama, Egun da Santi Mamiñarena? Usu paper arteko hautsetan gordeta, ezkutuan eta lozorroan egon egonean egoten dira altxor preziatuak eta eskura nahi genituzkeen zitak, izenak, tesiak, bertsoak, dantzak, kantuak ... Halandaze “Ator, ator mutill” kantua Azkue handiak batu zuen Otxandion eta Cancionero Popular Vasco lanean argitaratu zuen. Horrela hasi ginen Durangoko Plateruen berri izaten.

Kantua Resurrección Maria de Azkuek argitaratu eta bere garaikide zen Jesus Guridik abestua izateko harmonizatu zuen. Gero, Gasteizko euskal seminaristei esker barreiatu zen*. Beranduago, 1948an, Felipe de Astola y Sertuchak zidarginon Gaboneco cantac publikatu zuen. Nikolas Alzola Gerediagak ere, 1963an, *EGAN* aldizkariko 4-6 aleetan gaia jorratu zuen. Eta Aita Santi Onaindia karmeldarrak *Euskal Literatura II* alean euskal literaturaren historiako partaide aipatu zituen Durangon zidarra lantzen zuten Plateruak.

Nortzuk dira Plateruak, Durangoko Plateruak? Nire lehen albistea *Noticias Históricas de la Villa de Durango, F.A. Veitiak eta R. Etxezarretak* egindako bilduma izan zen, Gerediaga Elkartek 1967an argitaratu zuenean. Hauxe liburuko aipamena:


"1828.ngo ekainaren 14ean Espainiako Errege ziren Fernando VIIa eta bere emaztea Maria Josefa Amalia de Sajonia Durangora sartu ziren Kurutziaatik goizeko hamaika t'erdia inguruan. Gerediaga muinoan agertu zirenetik kanpai hotsak eta txapligoak ugari ziren Durangoko urian harrera on bat egin guran. Egun bi igaro zituzten Pinondon horretarako egoitza apropos atondutako Gabina Egiaren jauregian. Errege jaun-andereok eta euron etorrera zelata gastu berezirik ez egiteko agindu zuten arren, etxe aurre guztiak zuritu ziren, itxuragatik bada ere. Hiru egunotan Durangoko tanbolitteruak alaitasuna herrian zehar erein guran ibili ei ziren, baita ere Probintziatik, Gipuzkoatik ekarritako dultzaineru talde bat.

Mezak, Tedeumak, bezperak eta beste enparauk, horrelako egunotan izaten diren lez konplitu ondoren, ekainaren 15ean arratsaldean eta Pinondoko landan Dantza-luzea edo Erregelak egin ziren hirurogeita hamar urte inguruko anaia bi zirelarik bata Aurreskulari eta bestea Atzeskularia. Oso ezagunak ziren Durangoko Plateruak izengoitiz, euron izenez baino sonatuagoak. Antonio gihartsua eta gorputz lirain lerdenekoa omen zen, lodikotea eta ganzduna aldiz Juan Kruz. Adin hortakoetan espero den baino arintasun handiagoz

dantzatu ei zuten, batez ere Erregelak egin ondoren Porru dantzatzerakoan Juan Kruz gizenaren bizitasunez harriturik Madrilgo gortetik honagino barrerik egin ez zuten erregina barre algaraka hasi ei zen, gure zidergin honen dantzarako grazia txalotuz. Ondoren uriko



He recibido de Sr. Antonio de Cruzgaitia los
 reales contenidos en el Libramiento precedente.
 Durango 25 de Abril de 1793
 Antonio de la Fuente, Juan Cruz de la Fuente

 Durangoko Udal Artxiboko dokumentua.

udalbatzakoek osotu zuten beste soka bat Manuel Fermín Vidaurre alkatea Aurrekulari zela...

Burgosko Andres de la Fuente Marco eta Gasteizko Francisca Bolanjero Elorriaga izan ziren plateruen gurasoak. Durangon bizi ziren eta euren semeak Santa Anako elizan bataiatu zituzten: Antonio de la Fuente Bolanjero 1757.eko abenduaren 12an eta bere anaia Juan Cruz de la Fuente Bolanjero 1760-eko azaroaren 25ean. Euren ama-hizkuntza, eta gurasoena noski, gaztelera izan arren, XVIII. Mendeko Durangon euskara ikasi ezetik kopla-bertsoetan ere zorrotzu ziren anaia biak.

Anaia biok aitaren ofizioa ere ikasi zuten: zilargintza. Zilarginaren langintza zein zen? Gaurko bitxigileekin aldarazterik baduela begitantzen zait. *Fielen txuzoak*, elizetako kopoi-kalizak, kapa-pluivialak, kandelabroak, ... han hemengo maiorazgoen seme-alaben ezkon-sarietako gerriko-belarritako-mahaigaineko bitxiak ... Eurok idatziriko kroniketarik jaso dugunez Durangon, Otxandion, Diman, Mañarian, Arratian, ... saltzen zuten landutakoa. Garai haietako komertzio bidean ezagunak ziren. Nekazari herrietako berri eta txisperu-armaginen, forjarrien edo marinel-arrain saltzaileen berri ere ematen zuten euren ziri-bertsoetan.

Euskal lanen berri eman aurretik ha-hor beste zenbait datu biografiko: Antonio eta Juan Kruz, anaia biak ezkondu barik hil ziren. Aita Santi Onaindiak zioenez, Juan Kruz bertsolaria edo letra egilea izateaz gainera goizero-goizero hamaika t'erdietatik hamabietara txistua jotzen ei zuen Santa Anarantz goazela Barrenkaleko seigarren etxeko balkoitik. Antonio osterera, doinu sortzailea izan zen. Txistua, bertsoak, musikak eta dantzak baino gehitxoago egin zuten anaioak. Hilterakoan ondasun hau laga zien ondorengoei: Barrenkaleko 6a, Artekalean 12-14a, Kalebarriko 46a, Kanpantorre-ostetan edo Matxino-estartako soloa eta lurretako Murueta baserria (gaur Landako)

Ziderginok utzitako lanen arrastoan Aita Villasantek, Euskaltzainburu ohiak, 1961ean *ScriptoriumVictoriense, Escuela Superior de Teologia, Seminario Diocesano de Vitoria* aldizkarian eta *Resumen de la Vida del P. Palacios y Rasgos de su fisonomía espeiritual* artikulua luzean bertso batzuk agertu zituen. Villasanteren hitzetan Otxandioko forjariet kantatzen ei zituzten. Bertso horiek Aita Jose Antonio Uriartek (1812-1869), Bonaparte printzearen laguntzailea eta Jaurerriko Batzar Nagusietako agiriaren euskaratzailea izan zenak, eskuizkribu batean jasota zeuzkan. Gaur egun Arantzazuko frantziskotarren komentuko artxiboan

1788

Cautiones de los Plateros de Durango

La Resolvida

Non legas para con
 Quis ascendere
 Otros illican uancan?
 Odo. bi. ucan.

Porque. Ave, ave, ave, pacho
 Ave. bada. avua?
 Tazpi. milla. Demoniac
 Demaniana
 Ho, io, io, io,
 Lira. mal. bitur?
 Oyer. uer. pa. u. bea
 Oca. De. l. u. k. e.

Don. lib. no. legam. era
 Que. con. i. epim,
 El. que. un. que. si. o. can.
 Hic. et. ubi. no. u. no.

Uranilla

Uranilla. i. f. u. n. c. o.
 U. r. a. n. i. l. l. a.



Gerediaga Elkarateak 1984an argitaratutako "Durangoko Plateruak" liburuxkan honako bertso zirikatzaileak argitaratu ziren

Arratia

Milla ta zazpireun
ta larogueta amairu
zer pasatu jaten aurten
cantatu naicogu
Inducira noiala ni
fiesten atzian
esaten nebala sarri
Inuenganian.
Ay ene, ay ene, ay ene, bada.

Momocho tamboliñagaz
atabalez Pepe
nic zapatac calcerdiyac
besapian bere;
ecin eguin aldatza
guero aldapia
Induciyen
Eguiteco
Lelengo dantzia
Ay ene,...

Chomiñen valencianagaz
urten neban andic
juan nintzan Guibraltano
casi busti baric
andican Mañarira
labandu ta jausi
mallatu arren gorputza
azurric ez ausi
Ay ene, ...

Mañarira jatzi nitzan
sopia bezela
altzi sicuric bagaric
burutic oñera;
tabernaco sucaldian
berotu ecinic
Chacoliñec erre arren
egur cargaonic
Ay ene,....

Gaboneco cantac

Ardi zain devoto bi
amodio andijas
Jesusengana duas
janari gustijas
batac darua esnia
bestiac estija
aurra consolatzeco
biardan guztija

Artuic pichar bete ardo
da guacen arin echera
gabon gaba celebratzeco
aitaren ta amaren ondoan.
Icusi oc aita barreca
ama bere chit contentus
baita neuc bere celango
traguac lenengo esanda Jesus
visigu errien assurac
ondo chapauco degus

Eraguijoc mutil
eraguijoc mutil
sirrin sarran
sirrin sarran
aurreco tamboliñori
gastañac eguin artean
gastañac eguin artean
sipli sapla
sipli sapla
plis plast
plis plast pum
gabon gaba celebratu dezagun

**Colección de Cantos Vizcainos, incluso los de los Plateros y del Duranguesado arreglados para canto y piano por B. de Ercilla, Dotésio, editor de música, -volumen 1º, nº 3 Gaboneco kantac, (Canciones de Navidad por los célebres Plateros de Durango)*

dago: *Poesía Bascongada: Dialecto Vizcaino*. Aita Jose Antonio Uriarteren liburu baliotsu honetan aurkitu zituen Villasantek, 178. orrialdean, *Durangoco cidarguiñen cantac*. Dokumentu honi esker Plateruon euskal bertsoak ezagutzen ditugu.

Antonio de Truebak ere, Bizkaiko kronikalariak, Donostian argitaratzen zen *Euskal Erria* aldizkarian ziderginon lanen zerrenda erderaz eman zuen honako hauek aipatuz: *Causino, de las moscas, Arcacusua, Duña, criada da sensañac, Viaje de Arratia, Marineros, Arre pocho, Asuntos caseros, de los chisperos, Monzona*(sic), *Reloj de Dima, Aita Palacios, Gaboneco cantac*. Truebaren lana baino lehenago Iruñeako *Revista Euskaran* bost bertso sailek argia ikusi zuten 1880n: *Arre-pocho, Euliyak, Diamaco* (sic) *fiestac, Aita Palacios, Zagarra*.

Memoriaz, tradizioaz, historiaz, betidaniko betikoaren lainotegi lausoan arakatzeko lanean hasi dut amaitzera doan ibilbidetxo hau. *Agur Zuberora* Etxahun Irurikoari zor diogu, *Egun da Santi Mamiña* Gabriel Arestik erditu zuen eta ... Hator, hator mutil etxera? Resurrección

Maria Azkuek egundoko lana burutu zuen. Azkuek zein abesti jaso zuen Otxandio aldean? Aita Uriarteren koadernoak ez zuen aztertu? Ez benetan? Bartolome Ertzilla (1863-1898) bere garaikide eta modan zegoen durangar konpositorearen Mesias sarritan agindu zana eta bere obra Bilbon ezezaguna ote zitzaion lekeitiarrari? Nebulosa lausoan jarraitu beharko dugu tradizioz ikasi dugun Hator, hator mutil etxera hungigarri eta betierekoa abestuz.

Aldiz, argitu dezadan, gure egunotan, Gabon ilunabarrean, oraindik bai behintzat, Otxandion, kalean eta etxeko afarira aurretik, urtero hirugarren bertso bat kantatzen dutela. Bataren zati batzuk baditu eta bestearen adabakiekin horniturik dago. De la Fuente anaiek euron ibileretan Otxandion batu zuten melodia-letra hori? Baliteke! *Boga-boga* nork idatzi zuen ez daki(gun)dan bezela gure Zidergin-Plateruon abestia anonimatura, historia-aurrera igan da eta Geurea da! Jarrai dezagun kantuan!!!

ANTTONMARI ALDEKOA-OTALORA



De la Fuente anaiak, zilargin maisuak

Antonio eta Juan Cruz bertsolari ezagunak izan ziren, baina egunerokoan zilarginak eta urregileak izan ziren. Lanbide artistikoa zuten, urrea eta zilarra landuz. Horretan aritzeko kaudimen ekonomikoa eta gizartearen status jakin bat izatea ohikoa zen.


Rosa Martin Vaquero historiagileak Pedro De la Fuente izeneko zilarginaren erreferentzia aurkitu zuen XVI. mendean Gasteizen. Seguruasko gure protagonisten arbasoa izan zen. Burgosera joan zenean, Andres de la Fuente semea jaio zen. Andres Gasteizera bueltatu zen eta Francisca Bolangerorekin ezkondu. Gero, Durangora etorri zen zilargin bezela lan egitera. XVIII. mendearen erdialdean etorri zen De la Fuente familia Durangora, Arabako hiriburuan konpetentzia handia zegoenean, lanean zortzi zilargin zeudelako, eta, euren artean, Santiago Bolangero bere aitagiñarreba.

Andres De la Fuentek Barrenkalen ipini zuen bere tailerra. Sasoiko agintariek laister jakin zuten eta Bizkaiko Jaurerriko sindiko-prokuradoreak eskutitza bidali zion ohartaraziz “odolez garbia eta nobleak zirela ziurtatu barik etxea jantzita eta familiarekin Durangon bizi zela”

eta hori foru legeen kontrakoa zela. Jaurerritik kanporatua ez izateko eskatutako ziurtagiria aurkeztu zezala aholkatu zioten. Andresek, 1758an, dokumentua aurkeztu zuen “kristau zaharrak, arraza txar guztietatik garbiak” zirela ziurtatuz, eta familia Durangon onartu zituzten.

Andres De la Fuente zilargin izateak bere bost semeen etorkizun profesionalean eragina izan zuen: Andres, Santiago, Antonio, Juan Cruz eta Lorenzo. Alaba bat ere izan zuen, Francisca. Aitaren lantegian ikasi zuten guztiek ofizioa eta ez zuten ezezagunen etxeetan ikasketa luzerik egin behar izan, ezta notario aurrean formakuntza ziurtatu ere.

Zilargin maisua izateko, derrigorrezkoa zen hiru eta zazpi urte artean irakaslearen etxean bizi eta lan egitea. Mantenua, jantziak eta kontratu bidez jasota geratzen ziren beste baldintza batzuk ziurtatuta izaten zituen ikasleak maisuaren etxean. Zilargin-mutil moduan hasiz, ofizial izendapena jasotzen zuten beranduago, eta amaitzeko, azterketa baten ostean, maisu kategoria izaten zuten zilarginek. Horrekin tailer bat zabaltzeko eskubidea zuten. Zilarginek egindako piezak markatu

 De la Fuente anaien zilar-lanak.



Axpe-Busturiako kopoia



Mallabiako kaliza



Arbatzegiko kaliza

egiten ziren eta hiriko markatzaileak erabilitako materialeetan legezko urrea eta zilarra erabilten zela ziurtatzen zuen. Lau zigilu edo marka jartzen ziren; egileak egiten ziona, materialea legezkoa zela ziurtatzen zuen markatzailearena, egin zen tokiko hiriarena (Bizkaian, Bilboko marka bakarrik ezagutu zen) eta "burilada" izenarekin ezaguna zen ebaki txikia metala aztertzeko egindakoa.

Neba-arreba guztiak Durangon bizi eta lan egin zuten, Andres izan ezik, Bergarara joan zen. Antonio, Juan Cruz eta Franciscak aitarekin lan egin zuten. Udalen eta elizen enkarguak jasotzen zituzten. Baina norbanakoentzat ere piezak sortzen zituzten, tailerrean zuzenean saltzeko edota feriatan. 1798an egindako lan baten erreferentzia badago: Durangoko gaueko elizkizunetan erabiltzeko zilarrezko piezak egin zituzten, aurrekoak galdatu egin zituztelako Frantziako Konbentzio gerra finantziatzeko. Gerra horretan parte hartu zuen Antonio De la Fuentek, Durangoko hiritar armatuen konpainian. Olaerreagan, Jaurerriaren muga, 1794ko abuztuaren 29an, frantsesek Ermua erasotu eta erre zutenean, Antonio saritua izan zen egindako lan onagatik. 1809an, antzeko gerra egoeran, Durangoko elizatako urrezko eta zilarrezko bitxiak tasatzea agindu zioten. Bitxi horiek Bilbora eramane zituzten Napoleonen tropek ez lapurtzeko.

De la Fuente anaiek ardurak karguak izan zituzten Durangoko Udalean. Antonio 1796an diruzain-sindikoa izan zen, eta ardurak berdina izan zuen Juan Cruzek 1796 urte amaieran eta 1817an. Jantzera zaharkitua erabiltzen zuten biek: lebita luzea, praka laburrak eta trikornioa.

Antoniok hildakoan (bere anaia Juan Cruz baino hiru urte beranduago) azken borondatea jasotzen zuen dokumentua utzi zuen, berak adierazi zuenez, Artekalen, "nire lantegiaren erakusleihoaren azpiko kajoieta baten". Dokumentuan dena lotuta utzi zuen: etxearen alokairu-ordainketa, neskame bientzat soldata, eta 72.390 erreale zilarrean eta urrean landutakoak Oñati, Bergara eta Argantzun zeuzkan 16 iloba eta bigarren ilobentzat. Bere arimaren aldeko elizkizunetarako ere dirutxoak gorde zuen.

Durangoko zilarginen jardun profesionala gehiago ezagutzeko Rosa Martín Vaqueroren lana kontsultatu daiteke: *Relaciones artísticas en el País Vasco. Los plateros de la Fuente en Vitoria, Durango y Bergara* (2006) eta Raquel Cilla Lópezen doktore-tesia: *La platería en Bizkaia. Del Gótico al neoclasicismo* (2016). Raquel Cillak utzi dizkigu Bizkaian aurkitu diren De la Fuente familiaren lanen gaineko argazkiak (Argazkiak: Pablo González eta Sergio López).

JOSE MARI URIARTE



Dimako kopoia



Berrizko tuzoa



Gizaburuagako koroa